


Astekaria



elgoi



Ura,  
likidorik  
estimatuen

IRAKASLE

ELKARTEA

**ZEZENBIDE**

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR

auto-eskola







*Izena ematean  
%10eko beharapena  
Gazte Txartelarekin*



# I. Kontzezio Azoka

# Mendaron

**Abenduak 9, larunbata**  
**Goizean zehar 9,00 - 14,00**  
**Frontoi inguruan**



Mendaroko txokolateak  
Nekazaritza Biologikoa  
Barazkiak  
Fruituak  
Ogi artesañoa  
Pastelak  
Sagardoa  
Lore lehorrak  
Ardiak  
Behiak  
Zaldiak  
Hegaztiak  
Esku lanak...

ANTOLATZAILEA: Mendaroko Udala



LAGUNTZAILEA: Debemen

### elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

#### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

#### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

#### ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

#### ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

#### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

#### MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

#### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

#### ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,  
M. Angeles Ortoste.

#### KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Mikel Artola, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Amaia Gorostiza, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maitte Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Eduarne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Antonio Mafias, Susana Mujika, Maitte Solozabal, Karmelo Urdangarin, Julen Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Aita eta ama

**L**ekuren batean egon eta gero, denboria pasatzen danian, norberaren buruak gauzarik garrantzitsuenak gordetzen ditu. Horrela, entzun eta bizi izandako gauza batzuk esango ditut gaurkoan.

San Pedro fabrika 1878. urtean zabaldu zan. Lehen ugazabak Bilboko markes bat eta Frantziako bi akzionista izan omen ziren. Bertan burdina funditzen zuten. Pabeiloi haundi batzuk zeuden eta danen erdian tximinia luze bat, 25-30 metro ingurukoa. Tximiniatik kea eta sua urtetzen zan. Bi laba zituen, 24 orduz martxan egoten zianak.

Lehenengo, elgoibartarrak bakarrik, baina denboriakin kanpotarrak ere etortzen hasi zian bertan lan egiteko. Langiliak euren bazkaria edo afaria etxetik eramaten zeben, kantinetan. Garai hartan inguruan ez zegoen etxerik, ez tabernarik eta baserrietara joaten zian ardo piskat eta tomate berde baten bila, gatza bota eta jateko. Denboriakin "ekonomato" bat zabaldu zan eta 1957an langilientzat etxiak egin zituzten. Etxeak hor daude oraindik. Fabrikia bota egin zaben, 1990an itxi eta gero. Azkenengo jabia Albulu

durangarra izan zan.

San Pedro, Elgoibarko enpresen Aita zela esaten zuten.

Elgoibarko beste puntan, Sigma. Han, erreminta makina eta josteko makinak egiten ziren. Garai batian Sigman lan egitia oso garrantzitsua zan, batez ere emakumientzat, han beste lekuetan baino gehiago ordaintzen zuten eta.


Akordatzen naiz zela "La vuelta Ciclista a España" Elgoibartik pasatzen zanian, Sigmako eta inguruetakoa enpresa guztietatik urtetzen ginan ikusteko. Demaseko jai ambientia egoten zan!

Behin, pinturako pabeiloiak su hartu zaban. Arrisku handia zauan bertako materialak eztanda egingo zabala eta. Sigmako sirenia jo eta jo egon zan, baita Parrokiako kanpaiak ere eta herri guztia egon zan kezkatuta sua amendatu arte. Hauek eta beste mila anekdota ere konta daitezke.

Elgoibarren dauden fabrika askoren sortzaileak Sigman lan egindakoak dira. Horregatik, Etxe Handia edo Ama deitu izan zaio beti.

**Ana Igartua**

*Eusko Jaurlearitzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

### Legealdi honetan egingo al dira babes ofizialeko etxebizitzak?

Alkatearekin egon gara eta baietz esan digu. Zenbat etxe eta noiz egingo diren ezin digula zehaztu baina datozen lau urteotan Elgoibarren babes ofizialeko etxebizitzak egingo direla aitortu digu.



## KEXAK

Irakurle bat etorri da zeharo haserretuta “gauza batzuk aurrera baino atzera egiten dutela” esanez. Oraingo honetan, Elgoibarko postetxeak errotulo berria jarri du kanpoko aldean eta dena “en perfecto castellano” idatzita. Euskara hutsez idaztea asko eskatzea omen da baina gaztelania gauza bera egitea normalizat hartu behar dugu. Noiz arte?



## TXALOAK

Emakume bat etorri zaigu Elgoibar-ko Musika Banda txalotu nahi duela esateko. Azaroaren 26an eskainitako kontzertua benetan zoragarria izan omen zen. Denak ondo egon baziren ere, Txomin Mujikaren azalpenak eta David Tejerok baka-rrik jotako piezak azpimarratzekoak izan zirela esan digu. Pena bakarra daukala esan digu: kontzertua herri osoak entzun ez izatea.

## ESKUTITZAK

### Gurutze Gorriari buruz

**G**urutze Gorriak erakunde neutrala dela erakutsi nahi digu, ez duela filosofia, erlijio edo politikarako auzietan parte hartzen. Hortaz, zer dela eta kolaboratzen du PSOEn gobernarekin, diru kopuru handien truke objektoreak hartuz eta Ordezko Zerbitzu Soziala (OZS) egiteari uko egiten diotenak salatuz? Zergatik daude asko eta asko espetxeetan Gurutze Gorriak borondatezkotzat jotzen duen lan hori egin nahi ez izateagatik?

Gurutze Gorriak objektore-intsumituen epaiketa eta gartzelaratzean kolaboratzen du eta zerikusi handia dauka 200 kontzientzi-presoa baino gehiago egotearekin edo soldaduzka edo OZSari uko egiteagatik epaitzeko zain dauden edo ezkutuan dauden hainbat intsumituekin.

Gazteen langabezia neurririk gabe igotzen ari den bitartean, Gobernuak militarren soldatak ordaintzeko ehundaka milioi ematen dituen bitartean, soldaduzka egiten ari diren ehundaka gazte hiltzen diren bitartean, gartzeletan gero eta intsumitu gehiago dagoen bitartean, aurka daudenak “solidaritateraren” izenean edo zerbitzu militar zaharkitu eta zapaltzailearen izenean lan egin dezaten nahi dute.

Gurutze Gorriko bolondresak

edo beraien lana kritikatzeko inongo intentziorik gabe, arduradunen jarrera salatu nahi dugu eginkizun sozialak betetzeko dohaineko langileak erabili eta OZS egiteko objektoreak hartzeagatik, derrigorrezko zerbitzu militarren abolizioa aldarrikatzen duen gizartearen aurka.

**Elgoibarko Talde Antimilitarista**

### Lehen hitza, euskaraz!

**Z**iur nago noiz edo noiz beste hizkuntza horretan mintza izan zarela telefono edo mostradorearen beste aldean zegoena zure hizkuntza hitzegiteko gai ez zela pentsatzeagatik. Hara zer gertatu zitzaigun guri motibu berarengatik:

Behin, lagun batzuk eta ni zenbait gauza erostera joan ginen. Bizpahiru dendetan euskaraz eskatu genituen produktuak eta Cervantesen hizkuntza baino ez zekitela erantzun ziguten. Gure arrakasta ikusi eta gero, denda batean gaztelania prezioa galdetu eta dendariak euskaraz eman zigun erantzuna.

Ez al du merezi zuzendu behar gatazkiekin pertsona horrek euskaraz ba al dakien frogatzeak?

**Amaia Urzelai**

**Datorren astean, BARRENez ere zubia egingo du eta ez da alerik kaleratuko. Abenduraren 15ean izango da BARREn hurrengo zenbakia.**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





**S**an Lorentzo auzoko pilotalekuan aterako argazki hau 1950. urtekoa da. **Sabin Juaristik** ekarri digu, eskuineko aldean ageri den pilotaria zenaren semeak. Elgoibarrek pilotari on asko eman dituen adibide bat baino ez da erretratu hau, bertan Artazo II, Arriola II eta Arriola III baitaude. Ziur ez dakien arren, San Lorentzo auzoko


jaietan ateratakoa izan daitekeela esan digu Sabinekin. Ziur dakiena da, abuztuan ateratakoa zela. Itxura denez, pilota partidua hasi aurretik une bat aprobetxatu zuten argazkia ateratzeko.

Ezkerretik eskuinera: **Justo Juaristi Izagirre** "Artazo II" (†), **Iñaki Arriola Zabaleta** "Arriola III" (†), **Angel Arriola Lizarralde** "Arriola II" (†) eta **Sabin Juaristi Arriola** (†).



# 1000 baietz!

## Bazkide kanpainaren AURKEZPEN-TERTULIA



Abenduaren 4an, astelehena  
Arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean

### TERTULIA

Solaskideak: Felix Etxeberria, Mari Karmen Elustondo,  
Miren Vallejo, eta Manolo Zabala.

Gaia: "Elgoibartarren militantzia euskalgintzan 1963-80"

# Ura, aro berriko urrea

Aspaldian, toki guztietan entzuten ari gara klima aldatzen ari dela, temperatura igotzen eta, han eta hemen, euria egiten ez duenez, sikutea gero eta handiagoa dela. Ura etorkizunean urrea bezain estimatua izango dela uste du askok. Elgoibarren ez dugu arazo gehiegirik izan inoiz. Beharbada horregatik, ura kontsumitu baino sarri abusatu ere egiten dugula esan daiteke.

**G**aur egun Kilimoitik ekartzen dugu ura Elgoibarreraino. Mendaron, kobazulo batek ateratzen da ura, lur azpitik. Nahikoa dagoenean, berezko jarioa eramaten du urak handik metro batzuetara dagoen depuradoraraino. Azken egunotan euririk apenas egin duenez, motobonbak martxan jarri behar izan dira ura lur azpitik atera ahal izateko.

Depuradoran urak hiru prozesu pasa behar izaten ditu Elgoibarrera arteko ibilbidea hodietan zehar egin arte. Eurien eraginez ura lokaztua etortzen denean dekantazioa egiten da, ura eta buztina bereiztuz. Mendaroko depuradoran, aire sistema baten bidez egiten da dekantazioa. Ondoren, filtratu egin behar da, hau da, urak menditik dakartzan zakarrak, hondarra, harriak eta bestelakoak filtratu egiten dira. Azkenik, desinfekzioa dago. Urari kloroa botatzen zaio erabat edangarria izan dadin.

Depuradoratik gertu bonbeoa egiten da eta haren bitartez, Elgoibarko hiru depositoetara bidaltzen da ura: Altzolara,

Arriagara eta Kakatzara. Elgoibarren bertan hainbat tuberia daude lur azpian eta haien bidez, herri osoan zehar zabaltzen da. Motobonba ezberdinak daude sakabanatuak herrian zehar eta horien bitartez auzo guztietara zabaltzen da ura. Santa Klaratik Urasandira, adibidez, Urriako depositoarene bitartez. Sigman beste motobonba bat dago Sigma osoa babesten duena, auzoa eta Olaso industrialdea. IMH inguruan dagoen bonbeo sistemak Agarreko depositora bidaltzen du ura eta hemendik San Rokeko etxeetara eta abar.

## **Kalitate oso ona**

Ura gure etxeetako txorroetara iritsi aurretik, makina bat analisi egiten dira. Egunero, Mendaroko depuradorako langileak arduratzen dira horretaz. Elgoibarren bertan, egunean bi aldiz, goizez eta arratsaldeztartez aztertzen da ura eta astero, Osakidetza-koek analisiak egiten dituzte. Kontrola, beraz, nahikoa dauka elgoibartarrok edaten dugun urak.


Kilimoiko ura "biguna" da, karerik gabekoa. Zaparez sosoagoa baina kalitate oso onekoa. Halere, kloroa beharrezkoa da

ura edangarria izan dadin. Kloroaren neurriak, batz bestea, 0,4 eta 0,8 bitartekoa behar du izan. Gaur egun Elgoibarren edaten dugun urak 0,6 inguru izaten du. Egin izan diren analisi eta azterketa guztietan kalitate aldetik oso ona eman izan du beti. Ezin gara kexatu edaten dugun uraz.

Kilimoitik ekartzen hasi baino lehen, Elgoibarren erreka ezberdinetatik jasotzen zen ura: San Lorentzo, Saturixo, San Migel, Morterika, Olasaga, Agarre Txiki eta Goenagatik. Errekasto horietako ubideak mantendu egiten dira oraindik, martxan egongo balira bezala. Izan ere, batek daki egunen batean Kilimoiko urak kale egingo duen eta berriz ere herri inguruko errekaetara jo beharko ote dugun. Halere, askoz kalitate hobea du Kilimoiko urak. Aurrera begira, depuradora bat jartzen bada, San Lorentzo edo beste hainbat puntutatik ekarritako urak beste edonongoak bezain kalitate ona izan dezake.

#### Ur nahikoa

Euri gutxi egin du aspaldian. Udazken benetan lehorra bizitzen ari gara. Dena dela, esan digutenez,



■ ■ Mendaroko depuradorako eta Kilimoiko erreka argazkiak.

kezkatzeko arrazoi gutxi dugu elgoibartarrok. Eraginik badu, nola ez, euria egiteak, esate baterako orain motobonbak beharrezkoak dira lur-azpiko ura ateratzeko, baina gauzek benetan jo beharko lukete txarrera ura agortzeko.

Kilimoitik, batz bestea, 80 litro bonbeaten dira segundoko. Gaur egun, Kakatzan 4.000 m<sup>3</sup>ko depositoa dago, Agarren 500 m<sup>3</sup>, Urtian 500 m<sup>3</sup>, Arriagan 600 m<sup>3</sup>, Altzolan

400 m<sup>3</sup>, Sigman 200 m<sup>3</sup> eta Salaburun 400 m<sup>3</sup>. Ura etengabe berritzen da, etxean jasotzen duguna, beraz, ur berria da beti. Gau osoa grifoa itxita egon eta gero, goizean goiz irikitzean kloro gustu gehiago izan dezake urak, baina txorroa bost bat segundoz erortzen utzi eta listo, gusturik ez.

Andaluzia aldean izugarritzko lehortea bizi dute eta ur aldetik mugatuak daude. Horrelakoak irakurtzen ditugu egunkarian eta sarri entzun izan dugu, urari dagokionean, aurrezten ikasi beharra daukagula. Sekula arazorik izan gabe zaila egiten da, are gehiago Kilimoitik ur nahikoa datorrela baldin badakigu, baina aurrera begira gauzak alda daitezkeela kontuan hartzen badugu, gaur egun hain arrunta dena zaintzea komeniko litzateke. Bada ez bada ere. Datu bat: Elgoibarren 3.000 m<sup>3</sup> ur kontsumitzen da eguneko. Atera kontuak.

<b>HIRUHILABETEKO URAREN TARIFAK</b>		
	<b>1995</b>	<b>1996</b>
ETXEKO KONTSUMOIA	52 pta./m <sup>3</sup> (+ BEZa, %7)	54 pta./m <sup>3</sup> (+ BEZa, %7)
KONTSUMO INDUSTRIALA	92 pta./m <sup>3</sup> (+ BEZa, %7)	96 pta./m <sup>3</sup> (+ BEZa, %7)
MANTENUA	720 pta./m <sup>3</sup> (+ BEZa, %7)	750 pta./m <sup>3</sup> (+ BEZa, %7)
<b>SANEAMENDUA .....</b>		
<b>Etxekoa</b>	<b>10 pta. /m<sup>3</sup></b>	<b>13 pta. /m<sup>3</sup></b>
	160 pta. (fijoa)	210 pta. (fijoa)
<b>Industrial</b>	<b>22 pta. /m<sup>3</sup></b>	<b>26 pta. /m<sup>3</sup></b>
	320 pta. (fijoa)	420 pta. (fijoa)

## Nongo ura edaten duzu?



**ESTEBAN LARRANAGA**  
36 urte, irakaslea

Itxurrikua normalian, konfiantzia ematen digu kontrolauta daualako. Umiantzat irekin eitxen dogu eta inoiz botelakua ere erosi izan dou.



**AMAIA BASTERRETXEA**  
50 urte, inmobiliariako langilea

Botilakua betidanik. Hala ere, etxian izan ezik, danian edaten dot itxurrikua eta kozinatzen ere bai, ez diot kloro gusturik igartzen.



**TONI RAYA**  
26 urte, etxekoandrea

Botilakoa edaten digu zeren eta haurrak gastroenteritisa izan zuen eta urarena zela esan ziguten. Gainera, batzuetan zikina urtetzen da, edo kloro askorekin.



**BENITO MARIN**  
64 urte, jubilatua

Bietatik, batzuetan botilakoa erosten digu eta beste batzuetan iturrikua edaten digu. Ur oso ona daukagu, Kilimoitik ekarritakoa, fidatzekoa.



**LUISA MALLO**  
34 urte, etxekoandrea

Txorrokua edaten digu eta umearentzat irakin egiten digu. Batzuetan kloro, lejia edo batek daki zeren usaina izaten duen. Udaltxean ere kexatu izan naiz.



**CARLOS GALARRAGA**  
43 urte, enkargatua

Iturrikua, nahiz eta nik ur gehiegi ez dudan edaten. Mendaroko ura ona iruditzen zait, ez diot kloro zaporerik hartzen.



- ERROTULUEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
- BARRUKO ETA KANPOKO SEINALIZAZIOA
- ERROTULAZIOA-SERIEGRAFIA

Olaso Industrialdea 15 - 55A  
20870 ELGOIBAR

Tel. 74 39 52 - 74 37 06  
FAX. 74 39 51

**Berria**  
ARGI BIRAKOIEN  
ERROTULU MUGIKORRAK



# hiru truku



Abenduaren 15ean, ostirala  
Gaueko 10,30etan  
Herriko Antzokian  
Prezioa: 500 pta.

## ■ Garantia Sozialeko Moduluen inguruan

Elgoibarko HBk bidalitako prentsa ohar batean Garantia Sozialeko Moduluen ikasturtea bi hilabete beranduago hastea salatu du. Atzerapenaren ardura Guillermo Garate alkateari egozten diote, "lehen Soraluzen ematen ziren klaseak, Pedro Muguruzan ematea onartu zuen aurreko alkateak, baina Guillermo Garatek, kurtsoa hasi behar zenean, ezetz esan zuen". Soraluzen klaseak ematen zirenean, 500.000 pta. ordaindu behar izaten zuten lokalen alogeragatik eta Elgoibarren, berriz, lokalak Udalarenak dira. HBren ustez, Garateren ezetzaren eta beraz, ikasturte hasieraren atzerapenaren arrazoia "Garatek Eibarko PSOeko alkatea presionatzeko arma moduan" erabili nahi izatean datza. Izan ere, DEBEGESA erakundeko presidente izandakoa da Eibarko alkatea eta gaur egun, berriz, Guillermo Garaterena da ardura hori. HBkoen iritziz, "PSOEko ei ez zaie bat ere gus-tatu Garateren izendapena eta borroka horretan Garatek Moduluen auzia erabili du alderdiko interes eta interes propioen alde". Bi hilabete hauetan Soraluzeko lokaletan makinak edukitzegatik milioi bat pta.ko alogera ordaindu beharko da Udalerrri guztien artean.

## ■ Nekazaritza ekologikoa

Biolur-ek, Zabalegi-Arteaga Fundazioaren laguntzaz bi hitzaldi antolatu ditu Elgoibarren abenduaren 11 eta 12an. Nekazaritza ekologikoaren oinarri eta hastapen teknikei buruz Pello Rubio herriko baserritarrak eta Jesus Calvillo Biolur-eko biologoak hitz egingo dute. Hitzaldia arratsaldeko 7,30etan izango da Kultur Etxean.



**Elizako organoaren 100. urteurrena**ren inguruan hitzaldiak eta kontzertuak burutu ziren joan den astean. Asteazkenean, Santa Zezilia eguna, Pello Zabala Arantzazuko frailea eta Aitor Olea organojolearen saioa izan zen parrokian eta ostiralean, aparteko organo kontzertua eskaini zuten Jose Luis Franzesena eta Myriam Ulanga organojoleak (argazkian). Organo afinatu berriak eliz barruak doinuz bete zituen, entzuleen belarriak klasikoaren musikarekin gozatuz.



**Erreminta makina eta elektronika sektoreetako** kalitateari buruzko jardunaldiak burutu ziren asteazkenean Erreminta Makinaren Institutuan. Industria eta Energia Ministerioaren Kalitate Industrialaren Plan Nazionalak eta Europar Fondo Sozialak finantziaturik, enpresa munduko arduradun eta teknikoei zuzenduriko kurtsoa izan da. Jardunaldiotan Industria Ministerioako teknikoak, Jaurritzako kalitate zuzendaria, INVEMA, CETECOM, FAGOR, BOSCH-SIEMENS eta CESA enpresetako teknikoak ere izan ziren hizlari.



**Mandiola S.L. Egurrak**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

## Igandean ezagutuko da Xake Txapelketaren irabazlea

Nazioarteko Xake Txapelketa burutzen ari da egunotan Kultur Etxean. Bosgarren erronda eta gero Mitkov mazedoniarra da sailkapeneko buru 4 punturekin. Segidan 3 punturekin berdinduta, Sion leondarra, Campora argentinarra eta Izeta zestuarra daude. Bi puntu t'erdirekin Mienzis letoniarra, Iruzubieta eta Ubilava georgiarra dira bosgarren, seigarren eta zazpigarren sailkatuak eta azkenik, Mario Gómez bi punturekin, Kosten ingelesa puntu t'erdirekin eta De la Villa puntu bakarrarekin. Irabazteko aukera gehien lehen lau jokalariek dute. Azken erronda igandean, arratsaldeko 3etan hasiko da eta sari banaketa, arratsaldeko 8,30etan.

### Haurrentzako xakea

Igandean, goizeko 10,30etatik aurrera, haurrentzako xake txapelketa azkarra burutuko da Kultur Etxeko ganbaran. Zubi-Ondo elkarteak eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, hiru



kategoria egongo dira: benjaminak, alebinak eta infantilak. Txapelketa honen sari banaketa arratsaldeko 8,30etan izango da, Nazioarteko Xake txapelketaren sari banaketarekin batera.



### HIESaren nazioarteko eguna


ospatu da gaur, abenduak 1, mundu guztiko txoko ezberdinetan. Elgoibarren ere, Errotatxo elkarrekin bultzatuta, lazo gorriak balkoi eta leihoetatik zintzilik ikusi dira han eta hemen. HIESarekin kutsatutako pertsonekin solidartatea adieraztea izan da Errotatxok bultzatutako ekintza horren helburua.

### ■ Gazte Asanblada

Gazte Asanbladak Belen Elorza zinegotziak bidalitako gutunean eskatzen zuen elkarteen eroldan erregistratzeko eskakizunari erantzun dio. Gazte Asanbladakoek komunikabideei igorritako idatzi batean zera adierazten dute: "Ez dugu lokalik ezta xentimorik ere eskatu, galdera bati erantzuteko bakarrik. Elorza zinegotziak Gaztetxearen aldeko ekimena izeneko proiektua baloratu badu, zergatik ez dugu erantzuten?, agian ez diote uzten?". Gazte Asanbladakoak legalizazioaren kontua Udalak bere komenentziarako aitzakia moduan erabiltzen duen iritzikoak dira, "ibaia- ren mozketaren alegazioei erantzun egin baitzigun Udalak legalizatuta ez egon arren." Era berean, taldeak kontratatzerakoan "erregistratu gabe egotea ez du kontuan hartu izan Udalak". Guillermo Garate alkatea legalizazio eza zela eta "prebarikazio"az akusatu zuen Gazte Asanbladak. Orandik ere euren proiektuari buruzko erantzunaren zain daudela gogorarazi nahi dio Udalarri gazte kolektiboak.

### ■ HBk koherentzia eskatu die alderdiei

Urriaren 27ko plenoan udal administrari laguntzaile lanposturako herri eginkizunetan inkapazitatuturik ez egotea eskatzen zuten baldintzak onartu ziren. HBren iritziz, intsumituek epaitu ondoren ez dute lan honetara aurkezterik izango. Hortaz, "Udalak (PNV, EA, HB eta IUren botuekin) intsumituen aldeko mozioa onartu zuela gogorarazi nahi diegu udal agintariei. Baina gauzak ondo pentsatu gabe onartzen direla argi dago, uztaileko mozioa herriaren aurrean ondo geratzeko onartu baitzuten". HBk koherentzia eskatu nahi die gainontzeko alderdiei.

 <b>ZERAMIKAK</b>	
Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8 83 Postakutxa Tel. 74 33 44 - 74 06 92 Fax 74 37 11	Biltegia: Arregitorre, 10 - 14 behe Tel. 74 20 38 - 74 23 71 <b>20870 - ELGOIBAR</b> Gipuzkoa

 <b>OIERKI</b> IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15 Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## Eskola mapa berria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak diseinatutako eskola mapa berriak Herri Eskola, Mendaroko Ikastola eta Herriko Institutura aldaketak ekarriko ditu. 1997-98 ikasturteetik aurrera 6 urtetik 12 urtera bitarteko Derrigorrezko Lehen Hezkuntza (D.L.H.) primario ikastetxeetan emango da, hau da, Herri Eskolan eta Mendaroko Ikastolan eta 12 urtetik 16ra bitarteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H./E.S.O.) Elgoibarko Institutuan. Bigarren Hezkuntza, Institutuaren menpe geratuko litzateke luzarora, oraingoz, autonomia den arren. Elgoibarko Institutuko zuzendaritzaren nahia 12 urtetik 14ra bitarteko ikasleak Institutura joan beharrean, Herri Eskolan eta Mendaron gera daitezten da. Batetik, azpiegitura aldetik Mendaron eta Herri Eskolan lekua badagokelako eta bestetik, ikasleek ez lukeelako joan-etorrietan ibili beharko. Gainera, Institutuak jangela eraiki beharko luke kanpoko ikasleentzat. Institutuaren proposamenaren arabera, D.B.H.-ren zuzendaritza hiru ikastetxeen artean koordinatuko litzateke ikastetxe bakoitzean azpizuzendaritza bana ezarriz. Proposamen hauek Deba Beheko Eskualdeko Eskola Kontseiluan eztabaidatuko dituzte eta urtarri-lera arte Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean aurkezteko aukera izango dute.

## Sukaldaritza ikastaroa

Elgoibarko EAJK abenduaren 18tik 21era bitartean burutuko den sukaldaritza ikastaroa antolatu du. E hizatutako hegazti eta Gabonetako postreen prestaketari buruzkoa izango da. Izena Plazako Batzokian eman 74 27 44 zenbakira deituta.

## Aldaia eta presoan inguruko mozioak aurkeztu ziren plenoan



Bi ordu luze iraun zuen pasa den ostiralean izan zen Udal plenoak. 11 puntu guztira, azken hirurak izan ziren eztabaidatuak.

Alderdi Popularrak aurkeztutako mozioak, Aldaiaren bahiketa salatzen zuten, bahituaren askapena eta Udaletxeko balkoian lazo urdina zintzilikatzea eskatuz. Alderdi guztien ezetza jaso zuen mozioak. HBk esan zuenez, "Euskal Herriak gatazka bat bizi du. Aldaia biktima bat da, presoak, exiliatuak, torturatuak eta beste hainbat diren bezala". EA, PNV eta PSOEk aurkeztu zuten mozioa onartu zen, PPkoaren antzekoa baina lazo urdina zintzilikatzea eskatu gabe. HBk aurka botatu zuen eta IU abstenitu egin zen.

### Autodeterminazioa

Hurrengo puntua HBren mozioa izan zen. Alderdi honek, Autodeterminazioa aldarrikatu zuen eta herriko norbait atxilotua gertatuko balitz, Udalaren ordezkarri bat komisaldegira joan eta tortura kasurik emango balitz, Udala akusazio partikular bezala aurkezteko eskatu zuen. EAk mozio alternatibo bat aurkeztu zuen.


Besteak beste, azaldu zuten, "Euskal Parlamentuak autodeterminazioaren aldeko erresoluzioa onartu zuen eta parlamentuari dagokio hori lortzeko ekintzak aurrera eramatea". Biolentziaren aurka azaldu ziren eta, era berean, "biolentziaren biktima guztiekin gure elkartasuna" agertu zuten. EAren mozioa onartu egin zen PNV eta PSOEn botuekin.


### Presoak Euskal Herrira

Senideak-eko hainbat kidek 11. puntua eztabaidatzen hasi zirenean, pankarta bat ireki zuten guztien begietara. Senideak-ek, "presoen eta beraien senideen eskubideak errespetatzea" eskatu zuen bai eta "presoak Euskal Herrira ekartzea eta baldintzarik gabeko askatasuna gaixo daudenean hiru laurdenak bete dituztenentzat". PNVko zinegotzia den Isaak Loiolak beste mozio bat irakurri zuen PNV, EA eta PSE-EEren izenean, "Senideak-ek aurkeztutako puntu berberak ditu baina sarrera zerbait aldatzen da" esanez. Senideak-ek ez zuen onartu eta zenbait kidek alde egin zuten.

**TXURI BELTZ**  
Taberna  
San Franzisko 38

**GARAY**  
HARATEGIA  
San Franzisko, 9. Tel. 74 13 92





**FERISALTSAN**

## Hurrena Gabon Zahar feria



**E**z pentsa feriara baserritarrak bakarrik hurreratzen direnik! Ganadua biltzen den tokian, han izaten da ume ugari ere. Ikusi bestela argazkian, inguruan zenbat haur dauden, guztiak txahaltxoak ikutu nahirik. Euriak zertxobait atertu zuen gu bertan izan ginenean, benetan eskertzekoa piskat lehenago bota

zuen zaparrada kontuan izanda. Arkumeekin zer egiten duten galdetzean denetik jaso genuen, batzuek haretegiara eraman ohi dute, besteek zuzenean hiltegiara... Azaroko feria etorri zen bezala joan zen. Hurrena Gabon Zahar feria. 1996an berezia izango da Kale Zulotik Baserrira gehigarria.

KALE ZULOTIK

## NUTRIZIOARI BURUZKO HITZALDIAK

**HIZLARIA:** Edurne Ugarte (Endokrinologian eta Nutrizioan sendagile espezialista)  
Guruztetako Ospitalean Endokrinologia Zerbitzuko sendagilea.

1. ELIKADURA OREKATU BATEN OINARRIAK (abendua 13)  
Zer eta nola jan behar dugu?
2. OBESITATEAREN ZERGATIAK ETA ARRISKUAK (abendua 20)  
Nola argaldu gaixotu gabe.

Hitzaldiak KULTUR ETXEAN izango dira ARRATSALDEKO 7:30etan hasita

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E.



LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia



# Arkumeak hiltegitira ala harategira?



xena.  
**Emeterio Elizburu  
Agarrestei (Soraluze)**

Nik mataderora, karnizeruari... Era danetara saltzen ditzut. Partikularrari salduta hobeto geratzen zera baina zuk hil bihar izaten dozu arkumia eta



**Ignacio Egiguren,  
Aizpuru (Azpeitia)**

Arkumerik ez dakat baina txalakin nik beti karnizeruakin ein izan dot tratua. 40 urte daruat berdinakin eta ondo portatzen dan



lan haundixaua da.  
**Jose Ignacio Aierdi  
Lekumberri (San Lorentzo)**

Nik karnizeruari ematen diot eta harek eruaten dau mataderora. Neuk kotxerik ez dakat eta 50 arkume urtero mataderora eruatia



bitxartian, ni gustura.  
**Anjel Mugerza  
Elgetsu (Mailabia)**

Nik partikularrari saltzen diot, hobeto urtetzen da, diru gehixo. Urtian 120 arkume inguru saltzen ditzut. Beti ein izan dot hola eta neretzat hori da egoki-



baino erretzaua da karnizeruakin eitxia tratua.  
**Jose Andonegi  
Urreistieta (Mutriku)**

Karnizeruakin eitxen dot tratua. Ondo pagauta dauan ala ez, hori ezin esan. Batzuk esaten dabe ondo pagatzia dala arku-



*Eskulanean  
saiatzzen gara*  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



*Kafetegia*

**BOUTIQUE DEL PAN**

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92



**EGONDO, s.a.l.**

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

**UPAITZA**

**San Lorentzo auzoan kokatzen da. Bertan, 6 pertsona bizi dira gaur egun. Vicente Maiztegi esan digunez, “kaletik, astebukaerak libre eta hilabete bakaziuak pagauta ekarriko nitxuzke”. Esaera zahar bat eskatu eta haiek, “norberan alabantzak astuan arrantzak” erantzun. Umoretsu aritu dira solasean, kontuak gora eta behera.**



Upaitza baserritik bista ikaragarri ederra dute, Elgoibar osoa ikusten da.

**R**aba eta patata ugari jasotzen dute urtero Upaitza baserrian. Gero, saldu egiten dute. Goizero, Ana esnea partitzera jasosten da. Horrela, egunak joan egunak etorri, Elgoibarko parajerik ederreterikoa ikustatzen den tokian ematen dute bizitza Maiztegi-Elustondotarrek. Elustondotarren belaunaldi asko bizi izan da Upaitza Goikoan. Orain urte asko, Upaitza Behekoa zen Vicente Maiztegi Antonia ezagutu, gustatu egin ziren eta ezkondu, Antoniak esan digunez, “zapata gitxi gastautako gizona da. Neska-laguntzia itxeko ez zan urrutira jun bihar, baserri bixak bata bestian azpizan zeuden eta”. Hiru seme-alaba izan zituzten, horietako bi bikiak, “baina lo eitzen gabian primerakuak zian. Umerik zauanik ere ezin igarri!”. Beti elkarrekin ibiltzen ziren anai-arrebak, Anak esan bezala, “inguruan beste baserririk ez dao eta kalera ez ginan bajatzen. Gure artian ibiltzen ginan jolasian, ganaduakin edo beste edozertan. Oingo umien aldian makina bat jolas eitzen genduan. Oin, umiak jolasteko “tiempo libre y planificado” bihar izaten dabe”.

**Ehiza eta lorak**

Vicentek Sigman lan egin zuen urte askoan, jubilatatu zen arte. Oporrak hartzeko aukerarik apenas dute Upaitzakoek, “baserrixan beti dao zeozer eitxeko eta bata ez bada, bestia geratu bihar izaten da”, esan digu Antoniak. Hala ere, noizean behin eskapada-txo-

**UPAITZA**

- **AUZOA:** San Lorentzo.
- **BIZILAGUNAK:** Vicente Maiztegi Agirregomezkorta, 68; Antonia Elustondo Etxaniz, 65; Jose Elustondo Etxaniz, 61; Iñaki Maiztegi Elustondo, 35; Santi Maiztegi Elizondo, 33 eta Ana Maiztegi Elustondo, 33.
- **LUR HEDADURA:** 13 hektarea.
- **ANIMALIAK:** Esne behiak, astoa, oiloak...
- **PRODUKTUAK:** baba, patata, porruak...

**Bikiak**

Santi eta Ana. Ana eta Santi. Bikiak dira. Nagusiena nor den galde-tzean, “azkena jaixo zana esaten dabe izaten dala” erantzun zigun azkar asko Antoniak, amak, “medikuak esan zian: zuk edozeinekin diskurtzen badozu horren bueltan, azkena jaixo dana zaharrena dala esaizu eta irabazikozu”. Garai hartan ez zen orain bezela, “ginekologua zer zan ere ixa ez zakigun. Momentua ailegatzan zian, komadroniari deitxu eta eitxeko ohian eukitzen zian umiak”. Ezer jakin gabe, orain 33 urte, uztaillaren 25ean, bat ez, bi ume ekarri zituen mundura Antoniak, “sustua, poza, harriduria... Danetik egon zan”.

ren bat egin eta Vicenteri ehizara joatea gustatzen zaio, “gaztetan hasi nitzan. Akordatzen naiz, zelan lehen derrigorrezkoa izaten zan domekero mezetara jutia. Domeketan, kazara juteko, lehenengo mezia en-tzun bihar izaten gendun. Goizeko 4,30etan esnatu eta Parrokixara juten ginan. Ordu haretan iluna egoten zan. Orduan linternarik ez zauan oin bezela eta garixa hartu, hari su eman eta haretxen argixakin bajatzen ginan. Gero, etorri etxera, txakurrak hartu eta ehizara”

Antoniari, berriz, denbora duenean, lora artean galtzea gustatzen zaio, “hori da nere afizua. Lora artian ni beti pozik”.

**Korrika afizio**

Santi Maiztegi korrikalari eza-guna da, “ehundaka kopa daude etxian berak irabazitxa”. Ana ere ibiltzen da noizean behin korrika egiten, “baina ni afizioz bakarrik, lehenengo postuetan ailegatu gabe”. Iñakik, anai zaharrak ziklokrosa du afizio. Anaia biak kalean daude lanean baina Upaitza baserraren inguruan dute etxea. Ana baserrian geratzekotan da, “ideala izango litzake baserrixan piskat eta kalian beste piskat eitxia lan. Gustatzen jata eta gainera pena bat izango litzake hainbeste urtian egon dan baserrixa lagatzia, inork nahi ez dabalako”.

# Jose Antonio Ansola:

## "100 kiloko zilindrikoa 297 aldiz altxatu naban ordu erdixan"



53 urte ditu Jose Antonio Ansolak. Irunaso baserrian jaio eta bertan bizi da. Gaztetan harrijasotzen ibiltzen zen eta, esan digutenez, bere parekorik ez omen zegoen. Zazpi oroigarri inguru ditu, han-hemen irabaziak. Aposturik ere egin zuen eta horietako batean, 297 aldiz jaso zuen 100 kiloko zilindrikoa ordu erdian.

**- Noiz hasi zinen harrijasotzen?**

- Etxian harri txiki bat zaka-gun aitxan lagun batek jokautakua eta haretxekin hasi nitzan, ilusiuakin 12 urte inguru nitxuala edo.

**- Zer pisuko harria zan?**

- 37 kiloko zilindrikoa. Gero, 18 urtekin hasi nitzan plazatan eta orduan 8 arroko zilindrikuekin ibiltzen nitzan, 100 kiloko harrixakin.

**- Apostuetan ibiltzen zinen, ez?**

- Bai. Garai hartan espektakulo gitxi zauan harrijasotzian inguruan, ez zan oin bezela. Guk apostuak eitxen genduazen. Nik bi ein nitxun. Lehenengua soldadu jun aurretik. Ordu erdixan 212 aldiz jaso naban 100 kiloko harrixa, eta apostua irabazi.

**- Ordu erdi geratu gabe?**

- Ez, hamar minutu bakoitze-ko 20 minutu deskantso.

**- Soldadutzara joan eta utzi egin al zenuen?**

- Ez. Afrikan tokau jatan neri eitxia eta gure jefe bat euskalduna zan. Harek harri bat zakan

eta han ibiltzen nitzan ni, jaixetan erakustaldixak eitxen. Soka tiran ere ibiltzen ginan, euskaldun asko egon ginan eta giro politxa sortzen gendun.

**- Zein da zure errekorra?**

- Soldadutzatik etorritxakuan beste apostu bat ein naban Oiartzungo Usategin kontra. Orduan, 297 aldiz altxatu naban 100 kiloko zilindrikoa ordu erdixan.

**- Zenbat diru jokatu zenuen?**

- Bost mila duro. Orduan diru asko zan!

**- Holakoetarako entrenamendu berezirik egiten al zenuen?**

- Bestetan baino zeoze gehixo, baina igual samar.

**- Elikadura?**

- Normala, janari espezialik gabe, arraina, okelia... Danetik. Oin diferentia da, bitaminak dala, medikua dala... Beste denbora batzuk dia.

**- 26 urtekin laga zenuen.**

- Bai, ez nakan entrenatzeko lagunik eta baserrixan ere lan asko nakan. Nekatu eitxen nitzan eta lagatzia pentsatu naban.

# ZELETA Barazkiak

SASDIKO PRODUKTUETAN  
SELEKZIOA



ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22  
ELGOIBAR



# MIREN

arrandegia



Santa Ana  
74 34 49  
ELGOIBAR



## Angel Mari Ansola

### Opel Analsakoa



- **Auto bateko zein zatirekin identifikatzen zara?** ▶ Bolantearekin.
- **Autoetako zein anagrama duzu gustukoen?** ▶ Mercedesarena.
- **Zer deritzozu txirrindulariak errepedean ibiltzeari?** ▶ Ondo beintxatzen jata baina kamiñu gorrixak egon biharko lirake.
- **Indurain ala Olano?**  
▶ Gipuzkoarra zela naizen, nahixao dot Olano.
- **Autoa zein koloretakoa?** ▶ Txurixa, seguruenala dalako.
- **Nora gustatuko litzaizuke joatea autoz?** ▶ Indiarara.
- **Autotxoakeak ala "montaña rusa"?** ▶ Autotxokiak.
- **Zein auto ez zenuke sekula erosiko?** ▶ Ez dot konpetenziari buruz gaizki berba eitzen. Etikia beti gorde ein bihar da.
- **Zein musika entzuten duzu autoan?** ▶ Erromantikua.
- **"Formula 1" ala pelota?** ▶ Gehixo gustatzen jata pelotia. "Formula 1" ikusten segitxuan aspertzen naiz.
- **Zerurako autopista omen da bizitza. Zer diozu?**  
▶ Izan leike baina autopistia baino gehixo errebueltia askoko karreteria dala esango neuke, Lekeitxio eta Ondarru bitxartian dauana bezelakua.
- **Abiadura konstantean ala azeleratuan bizi zara?**  
▶ Abiadura konstanteki azeleratuan. Suertia dakat ze Ertzainek ondiok ez die argazkirik atera eurak daozenian beti frenatzen dot eta.
- **Nori ez zenizkioke lagako zure autoko giltzak?**  
▶ Nere kotxia mundu guztixak ibiltzen dau, nik ez dakat problemarik.
- **Gaurkotasuna duen zein gairi joko zenioke bozina?**  
▶ Politikari. Horiek bai esaten ditxuela gizurrak, ez dabe esaten egi bat.
- **Zer nahiago duzu bizitzako semaforo guztiak saltatzea ala bolantea ondo kontrolatzea?** ▶ Bolantia ondo kontrolatzia.
- **Elgoibar auto bat balitz eta zu bere txoferra, norantz zuzenduko zenuke?** ▶ Donostiarantz, oso politxa dalako.
- **Zure autoan erle bat sartzen bada, zer egin behar duzu?**  
**a. Kotxea geratu. b. Leihatila ireki. c. Erlea harrapatzen saiatu.**  
▶ Ez naiz gelditzen baina gelditxu ein bihar da, bestela peligosua da distraixtu eitzen zeralako.

AMAIA GOROSTIZA

## UDAZKENA

### DOINUA:

Txoriak eta txoriburuak

Udazkena da uda ondoren iristen den urtaroa hostoak jausi, dena horitu egiten da hala nola haizeak gogor jo egin eta ahaztutzen dugu beroa hondartzara joateko gogoa gure barrutik badoa. (berriz)

Euria ere ugari izaten da urteko garai honetan baina aurtengo udazkenean sentitzen gara faltatan sikutea daukagu nagusi munduko hainbat herritan euria egin bestela laister hasiko gara eskean. (berriz)



AMAIA LEIARISTI



## Luzianoren erakusketa

Luziano elgoibartarrak egindako kuadroak ikusgai daude gaurtik aurrera, hilak 1, abenduaren 17ra arte. Arratsaldeko 7,30etan izango da erakusketaren inaugurazioa eta bertan izango da Luziano bera ere. Euskal Herriko paisaia tradizionalak berreskuratzearen aldeko apustua egiten du Luzianok bere obran. Elgoibar, Getaria eta inguruko beste herrialde batzuetako txokoak ikusi ahal izango dira, artistaren ustez "euskal paisaia, euskal kulturaren islada baita". Gure herrietan egiten ari diren eraikin modernoan aurrean, euskal paisaien erreibindikazioa da bere lana.

## Ikuslearen eguna larunbatera aldatzen da

Udal Kultur Zerbitzuak astearte gaueko ikuslearen eguneko zine emankizuna larunbat arratsaldeetara aldatzea erabaki du. Zinea prezio merkean jarri larunbat arratsaldeetako taberna giroaren aurrean alternatiba eskaini nahi du Udalak. Hortaz, larunbateko 7,30etako zine komertzialak 250 pta. balioko ditu. Dena den, astearteetako zine emankizuna bere horretan mantenduko da baina zine komertzialaren prezioarekin..

## Bi txotxongilo saio astebururako

**P**ertsona gehienentzako, txotxongiloak ez dute zertan haurrentzat bakarrik izan behar. Asteburuan, ostira-lean eta igandean, helduei eta haurrei zuzenduriko bi txotxongilo saio ezberdin ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. Ez dira nolana-hikoak gainera. Bulgariarrak dira batzuk eta Kataluiniarrak besteak. Biak Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian izan dira.

Gaur, hilak 1, ostirala, Bulgariako Theatre 13 konpainiaren "Folklore Mágico" izeneko obra antzeztuko dute. Izenburuak dioen bezala, Bulgariako folklolean oinarritutako ikuskizuna da, musika, kantua, dantza, giñola eta arte dramatikoak elkarren artean lotzen dituena. Ikuslearen begietara, nekazal tresnekin txotxongiloak egiten dituzte aktoreek. Testurik edo hitzik gabeko saioa da eta ikuskizunean parte hartzen duten



**Kataluiniako Nessun Dorma taldearen lanaren une bat.**

dantzariak gimnasia artistikako txapeldun izandakoak dira. Emanaldia gaueko 22,15etan hasiko da.

Igandeko txotxongilo saioak ere ikusteko moduko beste horrenbeste ekarriko du. Arratsaldeko 4,30etan Kataluiniako Nessun Dorma taldearen "Bufafocs" lana taularatuko da. Pepa eta Lolak, eguneroko bizimodutik ihes egin nahian, sukalde tresneriaz baliaturik teatro obra bat antzezteko erabakitzen dute. Perrault-en "La Cenicienta" lanean oinarrituta, "Bufafocs" sortzen da. Kasu honetan errauskiñe, mutiko bat da. Lanak badu helburu hezitzailea: eguneroko jardunean ekologikoagoak izatea.

**ASESORIA  
COOP**

---

**AHOLKULARITZA**

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

*okindegia eta gozotegia*

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**

## San Frantzisko eliza eta komentua

- Joan den astean hasi ginen San Frantziskon kokatzen ziren komentu eta elizari buruzkoak azaltzen. Orain honetan jarraitu eta bukatu egingo dugu.
- Atzeko fatxadaren eskuin aldeko kontrahormaren abiapuntuan, gaur egun Santa Klara monastegian dagoen eta garai batean Altzola dorretxearen kontra egon zen harrizko gurutzua zegoen.
- Eskuin aldeko fatxadaren atzeko aldean adreiluzko dorre karratu bat zegoen eta honen azpian zeuden ko ementuko gelak, liburutegia, sukaldea eta abar. Hauek guztiak bi klaustroren inguruan antolatuta zeuden, erdian ur-putzu bat zegoen eta klaustro bakoitzean kapera bana.
- Komentua 1840ko abenduaren 30ean itxi zen, desamortizazioaren ondorioz. 1891n bota zuten erabat hondatua baitzegoen, bertan eskolak, azoka-gunea eta abar egon ondoren. Aurretik, 1890ean, "Gaceta Madrid" deitzen zen Estatu mailako boletín ofizialak San Frantzisko komentua- ren jabetza Estatutik Udalerara pasatzeko legea atera zuen.
- Eskuin aldeko fatxadaren aurreko aldean, gurutzaduraren parean, beste sarrera bat zegoen, dinteldua. Bertatik parrokiako Aste Santuko prozesioak sartzen omen ziren. Irteera barruko atetik egiten zuten, Errosario kale- tik San Bartolome elizarai-

no joateko.

- Itxura austeroa zuen elizak, material pobreak eta dekorazio urria erabili baitziren.
- Eliz-zoruan 158 hilobi zeuden. Honez gain, presbiterioa, kupula, kaperak, koroa eta sakristia zituen.
- Kaperan, Paduako San Antonio, Kristo, San Jose eta San Juan Bataiatzailea zeuden ebanjelio aldean. Epistolaren txokoan, berriz, San Migel, Gurutze Santua eta Santa Anari eskainitakoak. Bi klaustroetako bat Sortzez Garbiari eskainitakoa zen. Gaur egun, aldea eta irudi batzuk San Bartolome parrokiaren daude eta beste aldea bat San Pedroko ermitan egon zen.
- San Frantzisko eliza 1924an bota zuten. Harlanduak, gaur egun desagertua dagoen azoka plaza eraikitzeko erabili ziren.

PELLO ARRIETA



## Cleto Iglesias

Harakina (1906-1987)



- Elgoibarren jaio zen 1906. urteko apirilaren 26an San Frantzisko kalean.
- Pertsona oso ezaguna izan zen herrian bere lanbideagatik. Harakina zen, Errosario kalean harategia izan zuen 50 urtetan.
- Izakeraz pertsona atsegina zen. Bezeroen eta herritarren artean oso maitatua izan zen, alai eta hartu-eman errazeko gizona baitzen.
- Ezkondu eta hiru seme izan zituen.
- Futbola gustuko zuen. Ez zen futbola ordea, zaletasun bakarra. Perretxikotan ibiltzea eta mendian osteratxo ematea izan ziren beste zaletasun batzuk.
- 1987. urtean hil zen, apirilaren 4an.

**MALAPE**

**Maria Urizar**  
ileapaindegi  
mixtoa  
Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

**TIR-TOR**  
Errosario 21

BATAIO  
ETA  
JAUNARTZE  
JANTZIETAN  
ESPEZIALISTAK  
☎ 74 17 15 ELGOIBAR

## MOTZAK

### Patxi Arriola, Espainiako txapelketako finalean

Patxi Arriola ehiztari elgoibartarrak, joan den asteburuan Manresan izan zen Espainiako Txapelketako "ehiza xehea" modalitateko finalerdian, abenduaren 16an Jumilla herrian (Murztzia) burutuko den finalerako sailkatzea lortu zuen. Valentzia, Nafarroa, Katalunia, Aragoa eta Euskal Herriko 18 partaideren artean, lehena geratu zen Patxi, 3 eper eta untxi bat ehizatu zituelarik. Jumillako finalean Estatu osoko 18 ehiztari onenak izango dira aurrez aurre. Patxi Arriolak gogoz hartu du Espainiako Txapelketa irabazteko erronka. Itxuraz, orain arte bi euskaldunek baino ez dute lortu Espainiako Txapelketarako sailkatzea, batek 60. hamarkadan eta besteak iaz. Patxi sailkatzen den hirugarren euskalduna da "ehiza xehe" modalitatean. Finalerdietan bezala, beste elgoibartar batek, Dani Arenasek lagunduko dio finalean epaile lanetan aritzeko. Zorte on!

### Urrezko eta zilarrezko 8 domina Ibaikoentzat

Ibai gimnasioko judoek urrezko lau domina eta zilarrezko beste hainbeste irabazi zituzten Azpeitian izan zen eskolarteko txapelketan. Alebinetan Aitor Gabilondok eta Maialen Morak urrezko domina lortu zuten eta Javi Muñozek zilarrezkoa. Infantiletan, berriz, urrezkoa Josu Idiaketz eta Egoitz Morarentzat izan zen eta Xabi Gonzalez, Zuhaitz Azpiazu eta Esther Idiaketz bigarren geratu ziren. Hauen-tzat, beraz, zilarra.



Maite Ansola:

### "Nesken futbolak ez du jendea erakartzen"

■ **Noiztik futboleant?.** - Duela hiru denboraldi hasi nintzen Eibartarrak taldean jokatzeko.

■ **Nolatan futbola?** - Lagun bat Eibartarrak-en zegoen eta jende faltan zeudela esan zidan. Gustuko nuenez, ba, animatu egin nintzen. Nire funtzioa presionatzea da batez ere, baloia kentzen saiatu. Besteen-tzako jokatzeko duen jokalaria naizela esango nuke.

■ **Zer moduz Ligan?** - Ondo, hirugarren gaude. Liga Nazionalen jokatzeko gaude eta gure gainetik beste kategoria bat dago eta azpitik beste bat.

■ **Igotzeko aukerarik izan duzue?** - Bai, aurten izan dugu aukera, baina dirua behar denez... Laguntza gehiago beharko litzateke. Nesken futbola nahiko baztertua dago, ez daukagu publizitaterik... ezer ere ez.

■ **Mutilen eta nesken futbolaren artean, diferentzia handiegia, ez?** - Bai, hala da. Italian, adibidez, laguntza handia du nesken futbolak.

■ **Gero eta emakume futbolzale gehiago omen dago.** - Bai, hori egia da. Lehen futbola mutilei lotuago zegoen.

■ **Gizonezkoak joaten al dira nesken partiduetara?**

- Joaten diren bakar-rak senitartekoak dira. Nesken futbolak ez du jenderik era-



kar-tzen. Egia da fisikoki alde dagoela, baina funtsean berdina da. Neska asko daude teknikoki jokalar oso onak direnak.

■ **Mutila jaiotzen bazina, futboleant aukera gehiago izango zenuela uste duzu?** - Ez nik pertsonalki, baina ekipoak bere osotasunean bai, daukagu ekipoarekin bai. Mutilen taldea izango bagina, inportantzia handiagoa emango zigutela uste dut.

■ **Futbola ikustea ala jokatzeko?** - Jokatzeko dudarik gabe. Ez naiz futbol partidu bat ikusteagatik "zoratu" egiten den horietakoa. Zelaian egotea dut gogokoan, ekipoan pentsatu eta irabazi.

■ **Lesioen beldurrik?** - Jendeak uste du nesken futbola "arinagoa" dela, baina ez da horrela. Azken partiduan, bilbotarren aurka, kolpe ugari hartu genituen, 'kamorra-za-le'ak baitziren. Partidu hau da jokatu izan dudana gogorrenetarikoa.

■ **Ikustea nahiko zenukeen partidu bat?** - Erreala edo Athletic-a Bartzelonaren aurka. Edo Madrilaren aurka, bestela.

• Adina: 22  
• Erreala ala Athletic-a? Biak berdin  
• Parrandak noiz? Sapatuetan  
• Jokalari bat? Juanjo Valencia, Athletic-eko atezaina



**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

**Merino zapatak**  
Irekita larunbat  
arratsaldeetan  
SALMENTA  
KONPONKETAK  
Errosario 11/12 behea

**ZALDUA**  
ITURGINTZA  
GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK  
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

## URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Atzean tente: Aitor Elizburu, Eduardo Barandela, Iker Osoro eta Roberto Osoro.  
Makurtuta: Javier Fernández, Lander Trinidad, Carlos Díez eta David Rodelgo.

**A  
L  
D  
A  
V  
A  
S**

### EKIPOKERIAK

- **IZENA:** Aldavas
- **ZERGATIK IZEN HORI?** Taldekideen artean emakumeei alusio egiteko erabiltzen zuten hitza da.
- **SORRERA:** 1992-93
- **AURTENGO ASMOAK:** Ligarako sailkatu eta ahal bada irabazi.
- **B/B ADINA:** 18/19 urte.
- **LORPENAK:** Oraingoz bat ere ez.

### GOLAK

#### ● GOLEGILERIK ONENAK:

- A TALDEA:** J. Aldazabal (Luky Luke) 6
- B TALDEA:** Erroka Castrillejo (Sanroketarra) 8

#### ● GOL GUTXIEN JASO DUTEN ATEZAINAK:

- A TALDEA:** Boo (PSK) 2
- B TALDEA:** Manzidor (Sanroketarra) 6

<b>A</b> Taldea	PUNTUAK	GOLAK
1. P.S.K.	10	15
2. LUKY LUKE	8	8
3. ORAIKO DISKO	7	7
4. KING KONG	6	5
5. KARKIS	5	3
6. PEDRUSKOS	4	-1
7. BERROGEI DURO	3	-5
8. S. PITXOTE	3	-10
9. S. KARAPOLA	2	-9
10. ATERPE	0	-12

<b>B</b> Taldea	PUNTUAK	GOLAK
1. SANROKETARRA	8	19
2. ALDAVAS	8	9
3. KOSAKOS	8	9
4. S.BRAGA	7	2
5. ORBELA	4	5
6. IKUS OPTIKA	4	-1
7. AMETSA	4	-2
8. REVEL URBI	3	-2
9. ROKE	2	-13
10. UDABERRI	0	-16

### Futbola

Elgoibar 14 - Almen 0 (Neskak)  
Eibar 0 - Elgoibar 0 (Kadeteak)  
Haundi 1 - Getxo 0  
Touring 1 - Elgoibar 3 (1. erreg.)  
Elgoibar 3 - Lagun Onak 2 (Infantilak)  
Azkuene 3 - Elgoibar 1 (Jubenilak)

### Areto Futbola

Elgoibar F.S. 2 - Egoki 2 (1. maila)  
Zarautz 3 - Elgoibar F.S. 1 (2. maila)

### Saskibaloia

Lesaka 61 - Elgoibar Saskibaloi T. 59

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 36 - Legazpi 3 (Kad. neskak)  
Txankakua Elg. 18 - Aiuru 11 (Seniorrak)  
Ormaiztegi 13 - Elgoibar 19 (Jubenilak)

### Futbitoa

Sanroketarra 9 - Roke 2  
S. Braga 4 - Udaberi 1  
Rebel Urbi 1 - Ametsa 2  
Aldavas 3 - Orbela 2  
Ikus Optika 4 - Kosakos 7

## AGENDA

### Futbola, Mintxelan

#### Larunbata, 2

12,00 Elgoibar - Aurrera (Jubenilak)  
15,15 Elgoibar - Lagun Onak (Kadeteak)  
17,00 Elgoibar - Hamaikak Bat (1. erreg.)

#### Igandea, 3

09,30 Gazteak - Urki B (2. erreg.)  
11,15 Eibar Urko - Getxo (Jubenilak)  
13,00 Urki B - Arrasate (2. jubenilak)  
14,45 Gazteak - Hernani (Jubenilak)  
16,30 Eibartarrak - Lagun Onak (Neskak)

### Areto Futbola, Kiroldegian

#### Ostirala, 1

22,30 Elgoibar - Ad. Jiménez (1. maila)

### Eskubaloia, Kiroldegian

#### Larunbata, 2

16,00 Elg. Pagoaga - Leizaran (Kad. neskak)  
17,30 Elgoibar - Moiarri Zarautz (Kad. mutilak)

### Futbitoa, Urasandin

#### Igandea, 3 (arbitraia: S. Braga)

10,00 King Kong - S. Karapola  
11,00 Pedruskos - Luky Luke  
P.S.K. - S. Pitxote  
12,00 Karkis - Berrogei Duro  
Oraiko Disko - Aterpe



Azaroaren 20an, 55 urte zituela, hil zen ANA MARI IRAETA  
URTIAGAREN sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako  
doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# 95 Kirolari onena

## Abenduak 21 Arratsaldeko 7etan Kultur Etxean

*Kirolari buruzko  
mahaingurua eta  
bukaeran kirolari  
onenaren eta BARREN  
sarien banaketa.*



ANGEL MARI ALBIZU  
1993ko Kirolari Onena



KARMEN PEREA  
1994ko Kirolari Onena

**BABESLEA:**  
TXANKAKUA  
Merkatari elkarte



**LAGUNTZAILEA:**  
CALCULMECANO

### 1995eko KIROLARI ONENARENTZAKO HAUTAGAIAK



#### JUDO

Gorka Garate (15 urte)

- Euskadiko 17 urtez azpiko Txapelketan brontzezko domina.
- Brontzezko domina Andorra-ko Nazioarteko Txapelketan eta Gipuzkoako 17 urtez azpiko Txapelketan.
- Gipuzkoako 17 urtez azpiko selekzionako preselekzionatua.
- Eibarko Nazioarteko Txapelketarako hautatua.



#### FUTBOLA

Joseba Etxeberria (18 urte)

- Urrezko bota eskuratu zuen Qatar-eko mundialean. 7 gol sartu zituen. Beste gol bat sartu izan balu burutu diren mundial guztietako errekorra hautsiko zukeen.
- Real Sociedad taldean jokatu ari zela Athletic-ek fitxatu zuen. Estatuko jokalarien artean fitxajerik garestiena izan da.
- Athletic Club-eko 3.500. gola sartu zuen.



#### ATLETISMOA

Gorka Sanchez (14 urte)


- Federazioak antolatutako hiru frogatan garaile izan da.
- Gipuzkoako Kros Txapelketan bigarren postua eta Euskadiko Txapelketan laugarrena.
- Gipuzkoako kadete mailako selekzioko kidea da.
- 1.000 metrotan bere markarik onena: 2'55".



#### IGERIKETA

Ines Segura (12 urte)

- Aurtengo denboraldiak bere marka pertsonalak hobetu ditu Lepazpi, Altza, Oñati eta Arratsen burututako txapelketetan.
- Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen.
- Markarik onenak: 200 estilo bakarra : 03'24"76, 100 tximela: 1'38"57, 100 bularka: 1'40"00 eta 100 libreak: 1'20"74.



#### TXIRRINDULARITZA


Arkaitz Martínez (16 urte)

- Kadeten mailan lehendabiziko postuak lortu ditu hainbat lasterketan: Zarautzen bigarrena, Ibaetan eta Azpeitian hirugarrena, Urretxu eta Elgoibarren laugarrena eta Bergaran bosgarrena.

# BARREN sariak 95

Gabon egun bezperan, **BARREN**ek 3. urtebetetzea egiten du. Ospatzeko **BARREN** sarien hirugarren edizioa eta 1995eko Kirolari onenaren aukeraketa antolatu da. Epaimahai kualifikatu batek sariak nori egokitu erabaki du. **BARREN**en egunero lanean gabiltzanok, zuen jarrera paregabea eskertu nahi dugu. **BARREN** sariak astekariak kolaboratzen duzuen guztiok biltzeko aitzakia izan nahi dute.


Kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi badizkiegu ere, ezin denoi saria eman. Horregatik, urtero antolatzen dugun sariketa honek lagun arteko bilkura nahi du izan eta ez zuen arteko lehiarako arrazoi.



## **HERRI KIROLAK**

**Jabier Arriola "Egi" (21 urte)**

- Euskadiko I. Federazio Txapelketan irabazle.
- Orion izan zen "Luis Atxaga" Sarietan bigarren sailkatu zen zortziko harri kubikoarekin.
- Gipuzkoako Txapelketan bigarren izan zen. Hiru minutuko saio batean 100 kiloko kubikoarekin Euskal Herriko errekor berria ezarri zuen 39 jasoaldi eginez.



## **ARETO FUTBOLA**

**Oscar Díez (22 urte)**

- 94/95 denboraldian jokalaririk onena eta goleatzailearik onena 15 golekin.
- Gipuzkoako selekzioarako hautatua 23 urtez azpitik, Gipuzkoako Txapeldun geratu zelarik.
- 23 urtetik beherako Euskadiko selekzioarako hautatua. Espainiako Txapelketa jokatu zuen joan den apirilean Andorran (Teruel).



## **EHIZA**

**Patxi Arriola (31 urte)**


- Aurtergo denboraldian, "Ehiza xeha" deritzon San Migelen izandako Elgoibarko Txapelketan eta Eibarren burutu zen eskualdeko txapelketan bigarren sailkatu zen.
- Azaroan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak lortu ditu.
- Espainiako oilagorren txapelduna da.



## **MENDIA**

**Aritza Monasterio (30 urte)**

- Copa Central (6.080m.) tontorrera igoera maiatzean.
- Alpamayoko gaina (5.947m.) eta Quitarajoko tontorra (6.040m.)
- Artesonraju (6.025m.) eta Piramide de Garcilaso (5.885m.) uztailean. Azken honetan bide berria ireki zuen 5.700m.ra arte.
- Andeetako gida ofiziala da.



## **KARATEA**

**Juan Carlos Mancebo (24 urte)**

- Klubeko lehen gerriko beltza.
- Honako karatelari ospetsuen ikastaroetan izana:
  - Taiji Kase maisua (9. DAN)
  - Luis Mari Sanz (Munduko txapelduna, 5. DAN)
  - Felix Saez (6. DAN)

**GAZTAROA ARO EROA**



## **ESAIEK... EHUN KILOren bigarren diska**

Jon Zabala, Kamilo Fernández, Jabi Bergara, Jon Iturrino eta Kristian Etxabe dira Ehun Kilo. 1993. urte bukaeran Durangoko liburu eta disko azokan, Oihuka disketxearen eskutik, aurkeztu zuten lehen diska, "Euli artean". Orain, bi urte beranduago, "Esaiek" izenburuko diska atera berri dute. Gaurkoan BARRENEko atal honetan Ehun Kiloko kideak dauzka gu gure artean taldeari eta diskoari buruz hitz egiteko.

**- Zein izan da taldearen bilakera?** - Guk egiten dugun musika mota euskal heavy-a da. Hasieran "Iron Maiden" taldearen eragina nabarmena zela uste dugu, baina piskanaka sortzen joan diren talde berriak kontuan izan ditugu, "trast" egiten dutenak batez ere. Taldearen bilakera nabarmena da, soinuari dagokionean batez ere. Gure ustez, "Esaiek" diska berrian soinua hobetu egin dugu.

**- Kanten letrak eta musika?**

- Mikel Otegi eibartarrak idazten dizkigu kantu gehienak. Disko berriko guztiak berak konposatu ditu, bi izan ezik, Jon Zabalak idatzi dituenak. Kanten betiko gaiak ikutzen dituzte; euskal historia, euskal gizartea, kaleko gauzak... eguneroko gaiak dira. Politikan ez gara sartzen. "Esaiek" diskaren letrak piska bat gogoragoak direla esan dezakegu, kritikoagoak. Musika, ordea, kide guztion artean egiten dugu.

**- Disko berria?** - Abuztuan grabatu dugu, 12 kantuko lana da, gure

bigarrena. Elkar estudioetan Oihuka etxearekin grabatua dago. Diskaren aurkezpen ofiziala abenduaren 6an izango da Durangoko liburu eta disko azokan, baina aurkezpen erreala abenduaren 5ean Tolosako "Gure Txoko"n izango da. Hala eta guztiz, dagoeneko Egin irratian, Euskadi Gaztean, Egunkarian eta beste komunikabideetan aurkeztu dugu diska.


**- Kontzertuak?** - Azaroaren 1ean hasi genuen bi hilabeteko jira Euskal Herrian diska aurkezteko "Larrua Truk" talde donostiarrarekin. Gure kontzertuetara 14 eta 25 urte bitarteko gazteak etortzen dira. Badi-rudi gero eta jende gutxiago joaten dela kontzertuetara, guztietara orokorrean, eta pena bat da. Orain urte batzuk, Su Ta Gar, E.H. Sukarra eta hainbat talde hasi zirenean, jende asko joaten zen euskaraz jotzen zuten taldeak entzutera; baina orain badirudi jendeak nahiago duela diskoteketara "bakalao" entzutera joatea, kontzertuetara baino.

**- Elgoibarren jotzeko asmorik?**

- Aspaldian ez dugu kontzerturik eman eta gustatuko litzaiguke. Udalak eskatzen badigu harremanetan jarriko gara.

**- Kontatzeko moduko anekdotarik?** - Bai. Behin Burgoseraino joan ginen eta eman behar genuen kontzertua hurrengo astean zen, beraz, aste-bete lehenago kontzertua eman behar genuen tokian agertu ginen.

**JABI LEÓN**





## Salerosketak

ORDENAGAILU BAT saltzen dut: IBM AT 286 (1024 Kyteper UGA pantaila, 44 M.B.eko disko gogorra, 3 1/2 eta 5 1/8 eko disketeak, 101 tekladun teklatura 3-31 DOS.  
☎ 74 19 21 Maite

PISTAKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean. Berria.  
☎ 74 01 84

Komedorerako aulki batzuk saltzen ditut. Egoera oso onean daude.  
☎ 74 37 22 (goizez 8-10)

1,05 oherako BI EDREDOI SALTZEN DITUT modu onean.  
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA txiki bat saldu nahi dut. Orbea markakoa.  
☎ 74 34 06

GAC ZIKLOMOTORE BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza da eta aseguria dauka 96ko maiatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23  
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

## Etxebizitzak

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.  
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAn. Amueblatua. Hondartzatik gertu.  
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.  
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.  
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.  
☎ 74 34 05 / 74 34 06  
M. Carmen edo Aurora

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.  
☎ 74 16 30 Maria Oliva  
Goizez 9,30-13,30

## Lana

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 74 29 56 Gema

TITULUDUN ERIZAINA, etxetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.  
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

## Garajeak

ALOKATZEKO GARAJE BAT daukat Santa Ana 2an.  
☎ 74 07 05

## Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASA PARTIKULARRAK ematen ditu.  
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.  
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

## Agurrak

Azaroaren 27an urteak egin zituen Josefa Garitagoitiari ZORIONAK! bere familia eta batipat Urkoren partez.

## Bestelakoak

Karitasek LABADORA bat eta SALARAKO MAHAIA eta AULKIAK behar ditu.  
☎ 74 15 09 - 74 12 57

LEPOKO ZAPI BAT galdu nuen pasa den larunbatean San Raketik elizara bidean  
☎ 74 33 74

URREZKO ERAZTUN BAT galdu dut. Urrezko bola bat eta gainean koloretako perlatxoak ditu.  
☎ 74 03 44

# AZAROAN

## Hildakoak

- ▶ Iñaki Arriola Zabaleta, 69 (azaroak 7)
- ▶ Mari Angeles Juaristi Arana, 68 (azaroak 17)
- ▶ Alfonso Ruiz Ortiz, 71 (azaroak 19)
- ▶ Juan Manuel Gómez Nogueira, 44 (azaroak 20)
- ▶ Ana Maria Iraeta Urtiaga, 55 (azaroak 20)
- ▶ Marcelino Burumendi Zubikarai, 52 (azaroak 21)
- ▶ Jose Arozena Arrizabalaga, 75 (azaroak 23)
- ▶ Ramón Arozena Ansola, 63 (azaroak 26)
- ▶ Juan Carlos Fernández Fernández, 31 (azaroak 28)

## Jaiotakoak

- Nerea Irusta Arrizabalaga (azaroak 9)
- Aritz Cerezo Urrutia (azaroak 12)



## Bixidenda

San Frantzisko 26. ☎ 74

### Gabonetako eskaintza berezia

### Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.

*Zatoz!  
Zure zain  
gaude.*

## 1 OSTIRALA

**19,00 LUZIANOren ERAKUSKETA**  
✓ Kultur Etxean (Hilaren 17ra arte)

**20,00 HBren MANIFESTAZIOA**  
✓ Plaza Handian

**22,15 HELDUENTZAKO TXOTXONGILOAK**  
"Folklore Mágico" Teatro 13  
✓ Herriko Antzokian

## 2 LARUNBATA

**16,00 XAKE TXAPELKETA**  
✓ Kultur Etxean

**19,00 ZINEA**  
"Braveheart" (Ikuslearen saioa)  
Sarrera: 250 pta.

**20,00 ZARAUTZ GAZTE ABESBATZAREN KONTZERTUA**  
✓ Parrokian  
Atolatzaila: Itxaropena abesbatza

**22,15 ZINEA**  
"Braveheart"

## 3 IGANDEA

**10,30 HAUR XAKE TXAPELKETA**  
✓ Kultur Etxean  
Ant: Zubi-Ondo eta Kirol Zerbitzua

**15,00 XAKE TXAPELKETA**  
✓ Kultur Etxean

**16,30 TXOTXONGILOAK**  
"Bufafocs" (Nessun Dorma)  
✓ Herriko Antzokian

**19,00-22,15 ZINEA**  
"Braveheart"

**20,30 XAKE TXAPELKETAREN SARI BANAKETA**  
✓ Kultur Etxean

## 4 ASTELEHENA

**9,30 EUSKAL ZINEA**  
"Haur lehoia" (OHoko ikasleentzat)

## 19,00 ELGOIBARKO IZARRAREN BAZKIDE KANPAINAREN AURKEZPEN-TERTULIA

Gaia: "Elgoibartarren militantzia euskalgintzan 1963-80"  
✓ Kultur Etxean

**22,15 ZINEA**  
"Braveheart"

## 5 ASTEARTEA

**22,15 ZINEA**  
"Braveheart"

## 6 ASTEAZKENA

**19,30-22,15 ZINEA**  
"French kiss"

## 7 OSTEGUNA

**16,30-18,30 HAURRENTZAKO ZIRKOA**  
✓ Herriko Antzokian (300 pta.)

## 9 LARUNBATA

**19,30-22,15 ZINEA**  
"Don Juan de Marco"

## 10 IGANDEA

**16,30 ZINEA**  
"Asterix en América"

**19,30-22,15 ZINEA**  
"Don Juan de Marco"

## 11 ASTELEHENA

**19,30 HITZALDIA**  
Gaia: Nekazaritza ekologikoaren oinarriak eta teknikak. Hizlariak: Pello Rubio eta Jesus Calvillo  
✓ Kultur Etxean  
Antolatzaila: Gipuzkoako Biolur (Asteartean errepikatuko da)

**22,15 ZINEA**  
"Don Juan de Marco"

# txandak

## FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
2, larunbata:	Etxeberria	Anduaga
3, igandea:	Etxeberria	Anduaga
4, astelehena:	Ormazabal	Zabaleta
5, asteartea:	Ormazabal	Zabaleta
6, asteazkena:	Ormazabal	Zabaleta
7, osteguna:	Ormazabal	Zabaleta
8, ostirala:	Yudego	Escala
9, larunbata:	Yudego	Escala
10, igandea:	Yudego	Escala
11, astelehena:	Bidasolo	Zabaleta
12, asteartea:	Bidasolo	Zabaleta
13, asteazkena:	Bidasolo	Zabaleta
14, osteguna:	Bidasolo	Zabaleta
15, ostirala:	Bidasolo	Zabaleta

## OKINDEGIA:

3, igandea: BOUTIQUE DEL PAN  
6, asteazkena: ZABAleta  
8, ostirala: IDARRAGA  
10, ostirala: DOÑA MERCEDES

## 22,00 ZINEA

"Don Juan de Marco"

## 13 ASTEAZKENA

### 19,30 HITZALDIA

Gaia: Elikadura orekatu baten oinarriak  
Hizlaria: Eburne Ugarte (endokrinologian eta nutrizioan espezialista)  
✓ Kultur Etxean  
Antolatzaila: Elgoibarko Izarra

### 20,00 PIANO KONTZERTUA

Pianojolea: Xabier Lizaso Loidi  
✓ Herriko Antzokian

## 15 OSTIRALA

### 22,30 MUSIKA JAIALDIA HIRU TRUKUrekin

✓ Herriko Antzokian  
Sarrera: 500 pta.  
Antolatzaila: Elgoibarko Izarra



PITXINTXU



Gabonetan zure eskaparatea, etxea, taberna,... apaintzeko lazoak, paperak eta apaingarriak PITXINTXUn aurkituko dituzu.

## ZURE LEIHOAK AISLATZEN DITUGU

Negua **SUFritu** beharrean **GOZATZEKO** aukera ematen dizugu



ALTZAIUZKO BURLETEAK uhertezinak, leihoarekin kontaktuan tentsatu egiten dira, airea, hotza, hautsa eta zarata sartzen diren zirrikituak erabat itxiz.



**glas control**  
BAlMENDUTAKO INSTAlATZAlEA  
**(943) 74 30 94**

Ubitarte, 7 behea  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**Haize, hotz, hauts eta zarataren kontra  
berogailuan aurrezten da • obra azkar eta garbia • mugagabeko iraupena**

# ikus



San Bartolome, 10  
Tel 74 37 34 • ELGOIBAR

## HELBIDE BERRIA


dela-eta abenduan

eta urtarrilean

**%10eko**

deskontua egingo

dizugu gure



IZEN ONENA DUTEN ETXEAK  
ZURE ESKU

